

Aikor!

orierriko aldizkaria

**Joseba Bidaurrezaga,
mediku naturista:**

**“Osasunak
bakoitzaren
obligazio
nagusia izan
beharko luke”**





Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkartearen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juantxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Oihana Astobieta, Arantzazu
Mendiguren, Eider Bilbao, Zalao
Jaca, Itziar Azpiri, Sabin Arana,
Udane Aiarza, Saionara eta Maripi,
Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiartza

Maketatzailea: Ainara Torres

Portada: Alex Zallo

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkarian adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzak



Bideaketa Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



13 Javi Gandara



26 Derioko Miragarri gimnasia erritmikoa taldea



19 Aitor Larrazabal



20 Sondikako jaiak



12 Hoborth, musika taldea



23 Loiuko San Pedro eta Santa Luzia jaiak

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 10Agustina Gaztelua
11Gurean izan da... Jean Haritschelar 12Gazteen txokoa 13Gaztea eta...
Javi Gandara 14Ameriketara joan nintzen (2) 16Joseba
Bidaurreazaga 19Aitor Larrazabal 20Sondikako jaiak 23Loiuko jaiak
26Miragarri gimnasia taldea 28Baserri mundua 29Teknologia
30Txorierri ezagutu 31Txorierriarrak munduan 32Sukaldaritza
33Denbora pasa 34Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

... ta segi aurrera, bikote!



Eider Bilbao
(Biologoa)

Zuon zenbait senitarteko lagun nituen, eta zuon izen zein bizitzak aski ezagunak; ni ordea, guztiz ezezaguna izango nintzen zuontzat. Hala ere, hurrengo egunean, pozarren kontatu nian gertatutakoa: *"emailaren erantzuna jaso diat eta nik pro posatzen nian gara gardoaren ordeza afari baterako gonbi tea luzatu zidatek!"*. Elkar ezagutu gabe, zuon etxeko atepak zabalik. Belgika ezezagunera egin beharreko bidaiak hasiera ezin hobea zuen, beraz!

Bruxels Midi geltokian adostutako zitan, zalantza izpirik gabe *"Rake!"* oihukatu ostean, zuk buelta hartu eta ezagutzen ez zenuen Eiderri besarkada bero bezain luzea eman zenion; orduan, etxetik urrun, baina etxean bertan nengoela sentiarazi zenidan Belgika txiki eta hotzean. Afari ezin hobea, osteko berbaldia errepika ezina eta zuokin igarotako asteburuak ahaztezinak.

Astegunetan Lovainako Unibertsitateko laborategian lanean eta asteburuetan zuokin hara eta hona igaro nituen 3 hilabete luze baina labur. Horrela ezagutu

zintuztedan, Belgikako urruntasun eta bakardadean bizi den familia. Bizitako urte latzak bizkarrean, baina minaren gainerik familia alai, langilea, maitasunez eta elkartasunez betetako familia. 12 urte luze etxetik, Euskal Herritik, kanpo derrigorrez eman badituzue ere, Euskal Herria ahazten ez duzuen belgikarrak. Zuon etxeko atepak ez ezik, bizitzak eta bihotzak ere ireki zenizkidaten *"euskal gatazkarekin elkartasuna adierazten duzuen belgikarrok"*.

Bueltan, motxila bete lan, malkoak begietan eta gorputza zeharkatzen zidan dardara luzea. Euskal Herrian, tokatzen zen buelta, baina ezer esan aurretik isiltasuna nagusi, hirurok baikenien hori ezinezkoa dela, *"Badakizu non bizi garen, etxeko atepak zabalik dauzkazu"* esanez agurtu ninduzun treneko nasatik, Luis.

"Bizitzako urte latzak bizkarrean, baina minaren gainerik familia alai, langilea; maitasunez eta elkartasunez betetako familia da zuena"

Udaberriarekin batera heldu nahi nuen zuonera bueltan, bisita labur baina atsegin batean. Espainiako gobernuak, aldiz, bisita zapuztu zigun *"euro-agindua"* dela bide zuok espainiaratzeko eskaera egin baitzuen, martxoaren 11ren ondoko egunetan. Bi hilabete labur, baina luze igaro dira dagoeneko, eta oraindik tribunalez tribunal bueltaka zabilzate zuon etorkizuna noiz eta non erabakiko zain.

Euroagindua nola aplikatu lezaketan aztertu nahian ei dabilta, pertsonekin, bizitzekin, jolasean; bitartean, urduritasuna, beldurra eta inpotentzia nagusituz doaz. Noiz arte horrela?

Bakean bizi dena, bakean utz bezate! Mosu eta besarkada handi bana,...ta segi aurrera!

Eragiok!



Zaloa Jaca
(Kazetaria)

"Hizkuntza batek ez dau irauten ekintza patriotiko hutsez", horixe dino Gotzon Garate idazle eta filologoak, azkenaldion irakurri dodan alkarriketan. Euskerea bizitzako gora behera guztietan txertatu behar dala azpimarratzen dau Deustuko Unibertsitateko Katedradunak eta normalizaziorako bidean ekintza patriotiko hutsagaz ez dala nahikoa irizten deutso. Euskal gizartean oso jarrera kontrajarriak dagoz honen harira; batzuk Euskal Herria euskalduna izatea gura dogun neurrian, beste batzuk, euskeraz bizi gura dauanari aukerak emoteagaz bakarrik konformatzen dira. Egungo dinamika ganera ez dau bape bermatzen euskerearen normalizazioa eta presio soziala areagotu egin beharko litzateke ezelango zalantzarik barik. Baina Euskal Herria ez da Larrabetzu edo Gernika, eta bakotzak bizi dauan esperientziak badau zeresanik. Euskerearen normalizazioan eragiteko, eremu ezbardinetan, egitasmo ezbardinak diseinatu beharko litzateke. Arabako euskaldunek ez dabe hiltzen komunitaterik osatzen neurri handi baten, esaterako. Horra hor adibidea. Leku batzuetako lehentasuna ez dalako normalizazioa, euskerea bera berreskuratzea baino.

"Hizkuntza bat ez da galtzen jendeak ikasten ez daualako, baizik eta dakienak ez daualako erabiltzen". Gogoan dozue esamoldea, ezta? Erabili eta jakin, jakin eta erabili. Batak besteari eragiten deutso, ados. Baina nok ditu gogoan identitatea eta nortasuna moduko kontzeptuok?. Eremu erdeldunetan edo administrazioa entzungor dagoan lekuetan, nok xaxatuko dau euskereak behar bezalako iraupena euki dagian?. Euskal Herriko txoko horreetan, euskerea irakasteaz ganera, euskal nortasunean lan egin beharko da, osterantzean, esperantoaren antzera, euskerea altxor txiki artifiziale bihurtzeko arriskua dago.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Mikel eta Iskander gure bihotzean lotuak

Lezamako Mikel Zarateri egindako omenaldiak sano lagundu deusku zauria osatzen. Hainbat ekitaldi izan dira Txorierrin azken hilabeteotan, eta gehienetan gogoan izan da gure Iskander Ojanguren, berak egindako lanagatik, neurri baten bera be omenduaz.

Behin baino gehiagotan pentsatu izan dogu jaso dogun laguntzagatik eskerrak emotea, baina gatz egin izan jaku kanporatzea.

Idazki honen bidez gure eskerrona agertu gura dogu:

Juan Luis Goikoetxea maisuari, aurretiaz, omenaldia baino hiru urte lehenago, martxan jarri zitalako Iñaki eta Iskander, Gure Mikel liburua egiteko materiala batzen; guretzat betirako altxorra da, altxorra dan lez hilerriko oroitarrian Juan Luisek berak idatzitako testua.

Iñaki Aretxabaleta lagun eta lankidea-ri; hainbat egunetan eta ilusioz beterik, Mikeli buruzko datuak eta testigantzak alkarregaz batzen ibili zarielako; egin dozuen lana ez da alperrik galduko.

Mikel Zarate lagunari, Iskan gogoan zaitugu poema maitagarria oparitu deuskuzulako, eta urtebetetzean alkartu zinien boskoteari, lagun ona zer dan hurretik sentitu dogulako.

Gaizka Peñafiel musikariari, berari eskainitako abesti alaia, guk edonoiz entzunaz gozatu ahal izango dogulako.

Etzahun Lekue bertsolariari, "bider, baster, eder, Iskander" lau oinakaz, oroigarriako sortu dozun bertso gozoagatik.

Mikel Zarateren familiakoei, hasieratik omenaldia bultzatu dozue, ekitaldi guztietan parte hartu, Mikelen presentzia gure artera ekarriaz, eta bide batez gure mutilarena be gogoan izanaz.

Lezamako Udalari, Omenaldia gauzatzeko, behar izan dan beste laguntza emon dozuelako.

Zorritzketan Euskera Alkarteari, isilean, aspalditik eta musutruk, hain zabal, mami-tsu eta bateragarri suertatu dan omenaldia antolatu dozuelako.

Aikor! lantaldeari, Mikelen pertsona eta obra ezagutzen eta baloratzen lagungarri izan zarielako Txorierrin zehar, eta bigarren urteurreneko ekitaldian, Iskanderri emondako saria hartukeran artelan eder bategaz jabetu garalako

Azkenik, eskerrona gugandik hur egon zarien guztioi, guretzat itzel lagungarri izan dalako.

Oihane, Andoni eta Tere

Askatasun eskubidea urratzen ari da

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Zigor Arloko 1. Sailak Euskaldunon Egunkariaren auzian Iñaki Uriaren baldintzapeko askatasunerako ezarritako bermearen inguruan Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak honakoa adierazi nahi du:

Zuzenbidearen aplikazio aldetik erabaki judizial arbitrario eta bidegabea da, justizian baino gorrotoan oinarria duena.

Oraindik ere kartzelaratzeko irudiak ditugu gogoan, han hasi baitzen itxuragabeke-ria hau guztia. Bere lankideak bezala, Iñaki Uri ere gizarte harremanetatik ezkutuka diharduen gaizkile baten antzera bahitu zuten; ordudunik, oinarririk gabeko akusazio baten ondorioz, 14 hilabete daramatza kartzelan. Jarritako berme kopuruak ez du erreskatea eskatzen dela beste zentzurik.

Ez dira justizia egiten ari, eta zergatia ulertzen ez dugun zigorra ezartzen ari dira, askatasun eskubidea ere urratzeraino.

Lehenago eskatu izan dugun bezala, berriro ere Iñaki Uriaren askatasuna eskatzen dugu.

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa

Aste berdea Txorierrin

Maiatzaren 31tik ekainaren 6ra bitartean Aste berdea izango da Txorierrin. Aste osoan zehar hainbat ekitaldi jorratu eta ekainaren 5ean, zapatuan, Aste berdea 2004 jaialdia ospatuko da Derioko frontoian. Hurrengo lerrootan herri bakoitzeko egitaraua duzue.

Loiu

Ekainak 2, eguaztena

18:00etan Hitzaldia Zabaloetxe Kultura Aretoan: Etxeko ekologia

Ekainak 3, eguena

17:00etan Txotxongiloak Lauroetako Ingurugiro Aretoan: *Salba ditzagun baleak*

Sondika

Maiatzak 31, ekainak 2 eta 4, astelehena, eguaztena eta barikua

17:00etatik 19:00etara Ingurumenari buruzko tailerrak: airea, ura eta habia

Ekainak 1 eta 3, martitzena eta barikua

17:00etatik 19:00etara: Pintura eta marrazki lehiaketa Ludoteka I eta ingur-

domeka
menari
ailerrak,
pane-



Derio

Maiatzak 31, domeka

17:00etatik 19:30etara Erakusketaren inaugurazioa Kultura Aretoan: ingurumenari buruzko zikloa, birziklapena eta multimedia heziketa-programak.

Ekainak 1, martitzena

17:00etatik 19:30etara Pintura eta kar-toizko dinosaurioak egiteko tailerrak...

Ekainak 3, eguena

17:00etatik 19:30etara Mekano eta globoflexia tailerrak, joko zaharren berreskurapena...

Ekainak 4, barikua

17:00etatik 19:30etara Pista-jokoa herri osoan zehar, diskoteka...

Maiatzaren 31tik ekainaren 4ra bitartean

Ortua landuko da eskolan eta institutu alboko lorategiak berreskuratuko dira.

Zamudio

Maiatzak 29, zapatua

10:00etan Pintura lehiaketa Bidekoetxe parkean: Zamudio eta ingurumena

Maiatzak 31, astelehena

18:00etan Pintura lehiaketaren sari banaketa herriko plazan

Maiatzak 31, ekainak 2 eta 4, astelehena, eguaztena eta barikua

19:00etatik 21:00etara Ikastaroa dorretxean: Hiri ekologia

Lezama

Ekainak 1,2 eta 3, martitzena, eguaztena eta eguena

17:30etatik 19:00etara Txikientzako ingurumenari buruzko tailerrak Ludotekan

Ekainak 4, barikua

19:00etan Txotxongiloak Kultura Aretoan: *Euskal Herriko itsasoa*



19:30etan Antzerkia Gaztelekuan: *Globalizazioa*

Larrabetzu

Ekainak 1, martitzena

18:30etan Txotxongiloak eskolako gimnasioan: *Kla, kla, kla, rezikla*

Ekainak 3, eguena

18:00etan Hitzaldia Anguleri Kultura Aretoan: Etxeko ekologia

ASTE BERDEA 2004

Jaialdia

Ekainak 5, zapatua, Derioko frontoian

12:00etan Txorierriko alkateek jasangarritasunaren konpromisoa berretsiko dute

12:30etan Zuhaitz landaketa alkateekin

17:00etatik 20:00etara Puzgarriak, jolasak, eskulan tailerrak...

19:00etan Txorierrin eta ingurumena argazki lehiaketaren sari banaketa

Lauroko eta Loiuko klubeko gazteek talde bakarra osatuko dute

Bi entitateen arteko akordioari esker, gazte kategoria bakarra osatuko dute Loiuko klubeko eta Lauro ikastolako 3. urteko futbol-jokalariek. Gainera, beharrezkoa izanez gero, 1. eta 2. urteko jokalariek ere kategoria horretan aritzeko aukera izango dute.

Taldeak Lauroko ekipajea jantziko du, eta ikastola arduratuko da entrenatzaileaz zein taldeko delegatuaz. Halaber, gazteek ez dute fitxarik ordaindu beharko, Loiuko klubak bere gain hartuko baititu.

Akordioaren arabera, partiden herena Lauro ikastolako instalazioetan jokatu da, eta hiru urteko epean Ohorezko kategoriarantz igotzea izango du helburu taldeak, baina goi mailako kategoriei uko egin barik. Era berean, euskara entrenamendu zein harremanen hizkuntza ofiziala izango dela aipatzekoa da.



Beste alde batetik, 2. erregionaleko taldea osatzeko konpromisoa hartzen du Loiuko klubak. Horrela, futboleko jarraitzeko aukera emango zaie klubeko eta ikastolako 19 eta 24 urteren arteko gazteei. Horrezaz gainera, jokalariek 2. erregionaleko taldea edota Loiuko lehenengo taldera iritsi ahal izango dira. Akordioak 5 urterako balioa dauka.

Dalmacio Langarikaren Oroimenezko II. Txirrindulari Martxa

Maiatzaren 8an, Dalmacio Langarikaren Oroimenezko II. Txirrindulari Martxa egin zen Derion, Gela Pedagogikoa kultur eta kirol elkarteak antolatuta. Bertara hainbat lagun eta txirrindulari batu ziren; haien artean, Lander Aiarza alkatea eta Euskaltel-Euskadiko txirrindulari batzuk izan ziren. Partehartzaileek ibilbide bi aukeratu behar izan zituzten, Derioko Apaizgaitegitik abiatuta. Ibilbideetarikoa bat 7 kilometrokoa izan zen, eta bestea, berriz, 15 kilometrokoa. Martxaren ostean, hamaiketako eskaini zen.



Derioko I. Merkataritza eta Zerbitzuen Gala

Ekainaren 25erako, barikua, I. Merkataritza eta Zerbitzuen Gala antolatuko du Derioko Udalak, herriko merkataritza eta zerbitzuen elkarteak lagunduta. Gala frontoian izango da. Ekitaldi ezberdinez gain, herriko dendetako arropa eta osagarrien desfilea ere egongo da bertan. Horren inguruan, aipatzekoa da maiatzaren 31n herriko gazteen artean kasting-ekin eta bertan aukeratutako zenbait mutil eta neska modelo izango direla.

Beste alde batetik, Derioko guapo eta guapa ere aukeratuko dira galan. Irabazleek Euskadiko Guapo eta Guapa txapelketan parte hartzeko aukera izango dute.

Ospakizunak Lezaman Oxangoitiren urteurrena dela-eta

Uztailaren Lezamako herriko tabernak 10 urte bete, eta hainbat ekitaldi antolatu ditu Oxangoiti kultura elkarteak maiatzetik uztailera bitartean. Beraz, ekintza batzuk jadanik jorrotuta izan arren, urteurrenaz gozatzeko aukera daukagu oraindik. Horrela, ekainaren 2tik 15era bitartean Saharari buruzko argazki eta panelak ikusgai egongo dira tabernan eta Kultura Aretoan, eta Sahara herriaren maratoiari buruzko dokumentala eta berbaldia egingo dira hilaren 11n Kultura Aretoan. Ekainaren 18an, barikuan, kantaldia izango da Oxangoiti tabernan eta inguruetan Ekidazu abesbatzaren, Etxebarria anaien eta Itxasoren eskutik. Gainera, sardinak jateko aukera ere izango dugu. Ospakizunekin jarraituz, ekainaren 16tik uztailaren 4ra bitartean erakusketa antologikoa (Lizaso, Irkus, Alex...) egongo da tabernan, eta Pirinioetara irteera antolatuko da ekainaren 25etik 27ra bitarteko. Beste alde batetik, uztailaren 3an, zapatuan, tabernaren 10. urteurrena ospatuko dute Oxangoiti Kultura Elkartekoek, eta egun horretan jai handia izango da Lezaman: bazkaria, trikipoteo, bertsoak, kontzertua...

Azkenik, Oxangoiti Elkarteko logoa aukeratzeko txapelketa ere antolatu dela aipatzekoa da. Bide horretan, baldintzak Oxangoiti tabernan eskura daitezke eta lanak aurkezteko epea ekainaren 25era arte izango da.

Jonathan Gonzalez txirrindularia omendu dute Zamudion

Jonathan Gonzalez, zamudioko txirrindulari gazteak sasoi onean dagoala erakutsi dau azken aldi honetan. Once taldean emondako bi urte gogorak ahaztuzat emon gura ditu, eta profesionalen tropelean bere lekua egin. Errioxako itzulian, Valdezcarayen eta Asturiaseko itzulian El Acebo etapa nagusiak irabazi ditu, txirrindulari handien aurretik. Gogotsu eta itxaropentsu dago Jonathan, Aikori adierazoz deusanez. Bere herritarrak be pozarren dagoz, eta hori agertu eutsan Zamudio A hirugarren mailako futbol taldeak etxean bere azken partidua jokatu ebanean, joan dan zapatuan. Jonathanek Zamudio KE-aren plaka bat jaso eban eta ohorezko sakea egin eban. Zorionak Jonathan!



Mikel Zarateren lanak sarean bilduta

Maiatzaren 12an, www.mikelzarate.com web orria aurkeztu zuten Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Aurkezpena egiten izan ziren Ritxar Zarate, Lezamako Udala, Zorritzeta Euskera Alkartea eta Susa argitaletxea. Web orriak Mikel Zaratek idatzitako 11 liburu batzen ditu osorik: *Higidura berdez*, *Bizkaiko euskal-idazleak*, *Hurgintza minetan eta Utopiaren fantasia*, haien artean. Gainera, Susa argitaletxearen asmoa da aurrerantzean lezamar idazlearen gramatika arloko liburuak, biografiak eta beste material batzuk ere web guneari eranstea.

Material horren barruan inon argitaratu gabeko *Hizunigo* nobela ere sartzen da.

Beste alde batetik, abendurako CD bi kaleratuko direla adierazi zuen Zorritzeta elkarteak. Mikel Zarateren heriotzaren 25. urteurrena ospatzeko eginiko omenaldi ekitaldien lan dokumentala eskainiko da CD batean, Larrabetzuko Bego Vicario zinemagilearen zuzendaritzapean. Begoren aitak egindako argazkiak ere bertan agertuko dira, izan ere, Jose Mari Vicario eta Mikel lagunak izan ziren. Beste CDak, berriz, Zarateren liburu guztiak eta berari buruz idatzitako hainbat material bilduko ditu.

Postontzi berdeak jarri dira Txorierrin

Tokiko Agenda 21 martxan dago Txorierrin jadanik. Egitasmo horren bidez, gure eskualdean dauden arazo sozial, ekonomiko eta inguruneak aztertu eta horrei konponbidea ematea du helburu Udaltalde 21eko ardura-dunek. Bide horretan, txorieritarren laguntza ezinbestekotzat jotzen dute, eta postontzi berdeak jarri dituzte herri guztietan. Bertan gaii buruz dituzuen kezak eta iradokizunak utz ditzakezue eurei helarazteko.

Horrela, Derion eta Larrabetzun postontziak udaletxeko sarreran jarri dira, eta Lezama eta Sondikan liburutegian. Halaber, udaletxean eta Elotxelerriko zentro-zibikoan aurkituko dituzue Loiu, eta Kzgunean nahiz udaletxean Zamudion. Horrezaz gainera, honako helbide elektroniko hauek ere zabaldu dituzte:

agendalocal21@loiu.org,

agenda21.sondika@sondika.org,

agenda21@deriokoudala.net,

agenda21.zamudio@bizkaia.org,

agenda21.lezama@bizkaia.org eta

agenda21.larrabetzu@bizkaia.org.

Hurtzaindegirako interesa dutenei deia egin die Zamudioko Udalak

Aikori!ren adierazi genuen bezala, Lehendakari Agirre plazako instalazioetan hurtzaindegira zabaltzeko asmoa dauka Zamudioko Udalak. Egokitze lanak laster hasiko dira, eta Udalak herritarren lankidetzarekin eskatu du, instalazioak zenbat umek erabiliko dituzten jakiteko. Horrela, seme-alabak hurtzaindegira eramateko asmoa duten gurasoak udaletxetik pasa daitezke, eta bertan zerbitzua erabiltzeko betebeharrak eta baldintzak eskura ditzakete. Halaber, inprimaki-eredu bat emango zaie, behar diren datuak batzeko.

Beste alde batetik, norberaren interesaren jakinarazpena ez dela prematrikulatza hartuko argi utzi nahi du Udalak, baizik eta zerbitzua eraiki eta hornitzeaz arduratuko diren lanak errazteko bilduko direla datuak. Prematrikula egiteko epea, berriz, behar denean zabalduko da.

Z.G.A.ren jaia, Zamudioko gazteen erreferentea

Apirilaren 24an jendetza handia batu zen Zamudioko Gazte Asanbladak antolatutako jaialdira. Horrela, bada, Zein, Kuraia eta Urgabe musika taldeek Bizkaiko hainbat eta hainbat gazte biltzea lortu zuten. Hala ere, gauean ez ezik egunean zehar ere giro ezin hobea izan zen Zamudion, Gazte Asanbladak programatutako ekintza guztietan zenbait lagunek parte hartu zuten-eta. Aipatzekoa da herri-bazkarira 165 pertsona bildu zirela.

Aikor!ek Gazte Asanbladakoengana jo eta emaitzarekin oso pozik daudela adierazi digute, *"izan ere, jaialdia Bizkaiko gazteentzako erreferentzi bihurtzea nahi genuen, eta helburua bete dugu. Gazteok nahi duguna egiteko indarra daukagula erakutsi dugu"*.



Areto Futboleko I. Txapelketa Derioko Jaietan

Maiatzaren 15ean, Derioko Areto Futboleko I. Txapelketaren finalak izan ziren kiroldegian. Txapelketa hori Arteaga areto futboleko taldeak antolatu zuen eta San Isidro Jaiei egitarauaren barruan sartu zen. Partiduak aurre benjamin eta benjamin mailetan egin ziren.

Aurre benjamin mailari dagokionez, Lezamako Bizia eta Romo taldeek irabazi zuten B eta A kategorian, hurrenez hurren. Eta Zamudioko Colegio Bizkaia, berriz, txapelduna izan zen benjamin mailan. Lander

Aiarza Derioko alkateak eta Jesus Laguna Kirol zinegotziak garaikurrak eta dominak eman zizkieten umetxoei.

Beste alde batetik, Derioko Areto Futboleko I. Txapelketan 12 taldek hartu dute parte. Hiru sailkapen eginda, Arteaga, Romo, Bizia eta Gorliz aritu ziren norgehiagoka aurre benjaminen B eta A kategorietan. Benjamin mailan, berriz, Arteaga, Bizia, Sondikako Gorondagane eta Zamudioko Colegio Bizkaia taldeak lehiatu ziren.

Gerra eta Literatura Larrabetzun

Bizkargi eguna dela-eta, zenbait jardunaldi antolatu dituzte Larrabetzuko Bihotz Bakartien Kluba eta Arrekikili Euskara Elkartek maiatzetik ekainera bitartean. Horrela, bada, Edorta Jimenez idazleak *Kilkerren hotsak* liburua aurkeztu eta Literatura Eskola izan ziren maiatzean, besteak beste.

Beste alde batetik, Julen Gabiriak *Hain goitik itsasoa ikusten da* liburua aurkeztu du ekainaren 3an, egunean, Anguleri Kultur Etxean arratsaldeko 8etan. Ekainaren 12an, zapa-tuan, azken Literatura Eskola izango da Goikoelexaldeko Txokoan goizeko 10etatik aurrera. Bertan, Kirmen Uribe hizlari aritu eta Silvia Plath, Alejandra Pizamik eta Anne Sexton poetaren lanak aztertuko dira. Gainera, azken eskola izanik, herri-bazkaria egingo da Ankapalu sagardotegian. Bazkal ostean, abestu eta dantza egiteko aukera egongo da, izan ere, sorpresaren bat prestatu dute antolatzaileek, antza.

Ekainaren 17an, egunean, sarean dagoen Linterna Gorria literatura aldizkariaren pape-rezko ale berezia aterako da. Eta ekainaren 25ean, barikuan, Edu Zelaiek *Mugaldekoak* liburua aurkeztu du Hori Bai gaztetxean gaueko 10etatik aurrera.

Obus baten leherketak gizon bat zauritu du Larrabetzun

Maiatzaren 19an, 1936ko gerrako obus bat lehertu zen Larrabetzuko Erkinko auzoan. Leherketaren ondorioz, Etxebarriko gizon batek eskua eta hanka galdu zituen. Ertzaintzaren arabera, gizonak landa batean aurkitu zuen obusa, eta Erkinko auzoan duen etxetxora eraman zuen. Hura manipulatzeko zebilela eztanda egin zuen, antza denez. Zauritua Galdakaoko ospitalera eraman zuten. Bertako batek Aikor! aldizkariari esan dionez, Etxebarriko gizon horren zaletasuna izaten zen 1936ko gerrako obusak edo antzeko jaurtigaia batzea, eta orain arte topatu dituenak Bilboko museora eroan ditu.

Jean Haritschelar, euskaltzainburua

“Nork bere euskalkitik abiatuta ikasi behar du batua”

Jean Haritschelarrek Mikel Zaratek duela 25 urte esandakoa berretsitu digu, hau da, dakigunetik ez dakigunera zuzendu behar dela ikasketa oro. Mikelen omenaldiaren barruan Lezaman egindako Euskaltzaindiaren batzarraren ostean egin dizkio adierazpenok Aikor!-i.



Mikel Zaratek esaten zuen euskara ikasterakoan dakigunetik abiatuz ez dakigunera joan behar dela. Jokabide hori Iparraldean ere eramaten da aurrera?

Dudarik gabe. Irratietan bertako euskaratik hasita ematen dira emanaldiak. Lehen euskaldunak sartzen ziren frantses eskolan euskara hizkuntza debekatua zela, eta holako trauma bat zen batetik bestera joan behar izatea, bat debekatua zelarik. Eta Iparraldean euskara irakasterakoan gauza bera hartu zen kontuan. Erran nahi baita, familiako hizkuntzatik ez zela aldatu behar, eskolak behar zuela harremana familiarekin hizkuntza bera erabiliz. Hortakotz, hori egiten da ikastoletan, katiximan eta baita Herria astekarian ere. Nik uste dut hori beharrezkoa dela eta pedagogiak hori galdegiten du. Gero esan nezake euskalkiak landu behar direla; ezin asmatzekoa baita pastoral bat batuan, horrek merezi du bere hizkuntza garbia. Pastoralak duen gatza eta piperra da, hain zuzen, xibereraz idatzia izatea.

Mikelek esaten zuen Etxepareengandik hasita euskalkiak bereizten hasi zirela, baina orain komunikabideei esker euskalkiak berriro hurbilduko dira?

Bai. Badakit sasoi batean, frankismoaren garaian, batez ere, muga bat bazela, eta muga horrek iraun du ez dakit zenbat urte. Erran nahi baita, Iparraldean Parisi begira geunden eta hemen Madrili, baina orain beste garai batean sartu gara, sortu dira autoak, hobetu dira bideak... Eta hain zuzen, harreman gehiago bada Iparralde

eta Hegoaldekoen artean. Horrek batzen gaitu, sartzen gara gure etxean han hemen bezala, bereziki ari garelarik euskaraz.

Zein izan zen Euskaltzaindiaren erronka 1968an?

Orduko jendeek (Aresti, neu, Mitxelena...) ikusten zuten frankismoak ez zuela iraungo, komunikabideak sortuko zirela eta euskara batua beharrezkoa izango zela, euskara batua horrek hartuko zituela eta bilduko zituela euskaldun guztiak. Nola pentsa egitea egunkari bat euskalki batean? Nork irakurriko zuen? Eta gertatu dena izan da. Geroztik sortu da egunkari bat, irratia, Eusko Jaurlaritza... Eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntza onartu du, eta onartu ditu Euskaltzaindiak emandako bideak, hortaz ortografia batua sortu da. Orduan urrats handi bat eman da, ortografiari dagokionez ez ezik, morfologia, deklinabidea eta aditzari dagokionez ere.

Zuk uste duzu beste 25 urte barru euskalkiak elkarrengandik hurbilago egongo direla orain baino?

Lehenago bazen holako euskara batu bat. Eta gero emeki-emeki bakoitzak sortu du bere euskalkia. Hori gertatzen da hizkuntza guztiak, gehiago herri batek ez badu estatu bat egiten. Hori gertatu da Euskal Herrian, beraz, beste era batean jokatu behar da, eta jokatzeko ari gara euskara batuarekin. Bakoitzak badu bere euskalkia eta batutasun batera jotzen dugu, eta eredu hori Euskaltzaindiak eskaintzen du, beti pentsatuz ez dituela sekula eus-

“Mikel Zarate aitzindaria izan zen euskalkiak eta euskara batua uztartzen”

kalkiak arbuaituko. Garai batean zioten batzuek euskara batua eta Euskaltzaindia zirela euskalkien hiltzaileak, baina ez da horrela. Eta uste dut, pentsatzen zuenagatik, Mikel Zarate aitzindaria zela euskalkiak eta batua beharrezkoak zirela esatean, baita Mitxelena ere. Gure euskara batua ez da sekula izan hizkuntza bakarra, komuna baizik, hau da, berarekin ez ziren euskalkiak desagertzen, baina euskalkien gainetik bazen hizkuntza komun hori, euskaldun guztiak lotzen dituen.

Hemendik aurrera, zeintzuk dira Euskaltzaindiaren erronkak?

Hiztegigintzan aurten bukatua izango da Orotariko Euskal Hiztegia, 16 liburukik osatzen dutena, baina bigarren urrats moduan Euskaltzaindiak egin beharko du bere hiztegi propioa euskaraz. Gero gramatika orain arte egiten den lana deskriptiboa da, baina egun batean gramatika arautzailea egin beharko da. Hirugarrena, atlasa da; hamar urteko lana da eta aurten lehengo liburukia agertuko da, mapa eta guzti. Laugarrena, euskararen korpus orokorra. Bosgarrena, toponimia eta onomastika. Eta azkenean literatura, aurten edo datorren urtean estilistikazko hiztegia aterako dugu.

“Gure helburua musika histerikoa egitea da”

Sondika, Bilbo eta Areetako taldekidek osatutako musika-taldea aurkeztuko dugu hurrengo lerrootan; Hiborth taldea hain zuzen ere. Euskal Herrian oso eza-guna ez den grindcore estiloa jorratu arren, bere jarraitzaileak baditu, Gipuzkoa aldean gehien bat, eta bizkaitar talde batentzat arazoa izaten da hori. Hiborth talde gaztea daukagu –urte eta erdi baino ez-; hala ere, maketa bat kaleratu dute dagoeneko, eta laster euren lehendabiziko diskoa ateratzea espero dute.

Nortzuk zarete eta nola osatu zenuten taldea?

Nerea –baxua–, David –bateria– eta Jon –gitarra eta ahotsak– gara. Taldea Nereak eta biok (Jon) sortu eta hasiera batean denborapasatzat bagenuen ere, gure burua ziurrago ikusi genuenean Davidengana jo genuen baterian laguntzeko.

Zer demontre da grindcorea?

Benetan ez dakigu. Gu zarata, zikin-eria, abiadura bizian jotzen saiatzen gara; ahalik eta bizkorren. Ezin dugu nahi dugun bezain bizkor jo, baina horretan gabiltza, izan ere gure helburua musika histerikoa egitea da.

Baina horrela jotzean, abestiek zenbat iraunten dute?

Ba, gutxi egia esan; hogeitasei – berrogei segundu. Ez du ematen askotarako... Luzeagoak eginez gero, aspergarriak egiten dira berehala.

Eta kontzertuak egiterakoan...?

Berdin, 20- 25 minutu iraunten dute. Zertxobait luzeagoak egiten saiatzen gara, baina ez da posible izaten normalean. Dena dela, 19 bat abesti jotzen ditugu.

Eta horrek badu inolako etorkizunik?

Ez askorik, baina beno, zer esan nahi du etorkizuna izateak? Ez gara musikaz biziko eta ez dugu halakorik nahi, egia esan. Argi dago musika undergraundean etorkizuna beti berdina dela: inork ez dio irteerarik emango gure estiloko musika egiten duen talde bati. Black Metalekin berdin gertatu da musika komertziala bihurtu arte. Antza, Satan eta Antikristoa goraipatzea modan dago musika mota batzuen artean. Eta beltzez janztea eta hartz panda baten moduan kaletik moztortuta ibiltzea normaltzat hartzen da, neska gazteen artean batez ere. Zer eskaintzen digu halako gizarteak?



Hiborth musika taldeak ez du hitzik erabiltzen abestietan; ahotsa baino ez. Horrela, espresioari leku handiagoa uzten dio.

Eta zuen hitzak? Zeri buruz abesten duzue? Eta zein hizkuntzatan?

Abestietan ez dugu hitzik erabiltzen. Hitzak garrantzi handikoak direla badakigu, baina talde askok letra osatzerakoan maila baxuagoan jartzen dute musika. Guk ahotsa baino ez dugu erabiltzen, horrela espresioari leku handiagoa uzten diogulakoan. Beraz, errebindikazio-musika jorratu arren, ez dugu ezer errebindikatzeko. Kontraesana badirudi, baina modu honekin sentitzen duguna adieraztea lortzen dugu.

Zelan iristen da halako musika egitera?

Kalean zein hedabideetan entzuten genuen musikaz aspertu ginen, nire ustez. Beste alde batetik, taldekide bakoitza musika-estilo ezberdinetik etorri eta grindcorea ez genuen ezagutu taldea osatu genuenetik hilabete batzuk pasatu arte. Davidek Inmortal antzeko taldeak entzu-

ten ditu, eta Nereak gustu ezberdinak ditu. Ni, berriz, Boredoms eta John Zorm entzuten nabil azken aldian, baita hemengo hainbat talde ere.

Proekturik etorkizunerako?

Lehenengo diskoa ateratzear gaude Genital Herpes errekordekin. Eta ekainean hainbat kontzertu emango ditugu. Lehenengo Deustuko gazte lokalean izango da, Veneral Disease taldearekin batera.



e-mail: itozak@hotmail.com

telefonoa: 659 139 639

<http://usuarios.lycos.es/hiborth/>

Testua eta argazkia: Itziar Azpiri

Javi Gandara ★ aktorea

“Inprobisatu behar izatea Jainkoaren oparia izaten da batzuetan”

Zuzenbidea ikasten hasi zen, baina berehala konturatu zen bere egiazko bokazioa antzeztea zela. Izan ere, 28 urteko gazte lezamar honek txikitatik erakutsi zuen aktorea izateko gaitasuna zuela: “Eskolan zein institutuan obraren bat antzezteko beti prest”, gogoratu du Javik. Beraz, fakultatea utzi eta Arte Dramatiko ikasketak egin zituen Getxoko Antzerki Eskolan. Gaur egun, Metropolitano 11 taldeko partaidea da.

Osperako lehenengo urratsak...

Antzerkiaren Nazioarteko Egunean jendaurrean antzezteko obratxo bat prestatzen da hirugarren kurtsoan. Emanaldia Getxo Antzokian izaten da, eta, arrakastarik izanez gero, hara eta hona ibiltzen zara; dirurik ikusi barik, noski. Dena dela, eskolan prestatutako lana kanpora ateratzen ahalegintzen zara beti... Gero, karrera-amaierako proiektua balitz bezala, obra bat muntatu behar duzu. Obra hori antzerki munda salto egiteko tranpolintzat jotzen da.

Zer antzeztu zenuen zuk?

Bertolt Brecht-en La persona buena de Sezuan. Taldekide asko euskaldunak ginenez, obra euskaraz eta gaztelaniaz antzeztea pentsatu genuen. Esperientzia polita, bai, baina ez guk espero genuena... Nire ustez, euskarazko obra asko ez dira aurrera eramaten, alde batetik, aktoreak ez direlako ausartzen, eta, bestetik, promotoreek bakarrik bultzatzen dituztelako irabazi ziurrak emango dizkieten obrak. Edozein antzokiren programaziora jo eta lanik gehienak gaztelaniaz direla ikus dezakegu.

Eta Bertolt zure tranpolina izan zen?

Ez, eta horregatik Metropolitano 11 taldea sortzea erabaki genuen eskola-lagun batzuek. Hala ere, antzerkia zaletasuna baino ez da, eta beste lanbide batzuk izaten ditugu; ni, adibidez, hodi industrialak egiten aritzen naiz. Euskal Herrian ez dago antzerki kultura

handirik, eta horregatik zaila izaten da mundu horretan leku bat egiten. Gainera, talde ospetsuak baino ez dira kontratatzen; gainerakooi ez digute aukerarik ematen.

Zer eskaintzen die Metropolitano 11k ikusleei?

Umorezko bakarriketak erabiliz, ikusleek une atsegina pasatzea dugu helburu. Horretarako, edozein pertsona izan ditzakeen kezkak kontatzen ditugu ironiaz baliatuta. Guk nahiago dugu saioa leku txikietan eman: babestuago sentitzen gara eta, gainera, ikusleen erantzuna beroagoa izaten da normalean. Hori dela eta, inprobisatu beharra izaten dugu batzuetan, eta hori Jainkoaren oparia da. Dena dela, inprobisazioa aho biko ezpata ere bada, eta gerta daiteke zeure paperetik ateraraztea; horregatik, ahalik eta inprobisazio gutxien egiten saiatzen gara.

Komedia betidanik izan duzu gustuko?

Egia esan, ez. Baina denetarik egin behar da. Munduko istoriorik tristeena kontatu arren jendea barre eragiten geniola konturatu ginen. Emanaldietan umore beltza erabiltzen dut nik, serio-serio beti.

Umorea inportantea da, ezta?

Inportante eta zaila. Umoreak edozein egoera leundu eta mezua modu egokian helarazten dio jendea. Orain ikusleek barre egiten dute, baina ziur



asko bat baino gehiago egongo da ondoren hausnartzen hasiko dena. Mundu kaotikoan bizi gara eta barre gehiago egin beharko genuke.

Metropolitano 11tik noraino?

Ahalik eta urrunen, baina oso zaila da: konpetentzia handia eta entxufe asko izaten dira eta promotoreek laguntza gutxi ematen dute. Beste alde batetik, taldean hasi ginenean ilusio handia genuen, izan ere, El Club de la Comedia alde batera utzita, geure taldea zen bakarriketak egiten zituen bakarra... Gaur egun, berriz, txitean-pitean topatzen ditugu bakarriketak egiten dituzten antzezleak. Beno, obra ahalik eta lekurik gehienetan antzeztan ahaleginduko gara.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Ameriketara joan nintzan

Testua eta argazkiak: Amagoia Guezuraga

Aurreko AIKOR! aldizkarian, neguko artzain aroa ikusi genuen. Hau amaitu, eta artzain eta ardiak desertuko bidea hartzen dabe.

Desertu lurraldeak gehienetan Estatuarenak izaten ziran eta bertan ardiak ibiltzeko zerga txiki bat ordaindu behar eben.

Baina desertua izanik, zergatik hara eroan ardiak?

Jon Oñatibiak idatzi eban lez, neguan eremu horiek elurpean egonda, udaberrian, elurra urtzerakoan halako belar mehe bat sortzen da, eta desertuko lur eremuak zabalak izanik nahiko janari dabe udaberri partean. Denpora gitxi emoten eben desertuan: ekainaren erdialdean, bero handiak hasten ziranean, mendira eta lertxumarren gereizpera joango dira.



Karro kanpoak, Boise (Idaho) 2000. urtea

Artzaina eta kanperoa desertuko bizitzan zaldiz mugitzen ziran.

Karro kanpoa deitzen dan burdi erako tramankuluan jan eta lo egiten eben.

Kanperook karro kanpoa atondu eta janariaz arduratzen zan eta artzaina, ardiez eta koioteez.



Artzainaren omenez Baterretxeak egindako monumentua. Reno (NV) 1993

*Indianoa nerone naiz ta
Egia esan hobe
Gazte gaztetik Amerikara
etorria trebe
Zaldi bat eta txakurrekin
Bi mila ardien jabe
Hilabeteak pasten ginuzten
Herririk ikusi gabe
(M. Goikoetxea)*

Shooting from the lip: Bertsolariak Ipar Amerikan / Joxe Mallea-Olaetxe

APIRILA

Izena	Adina	Nongoa	Noiz heldu	Nora	Kontaktua
Faustino Larrondo	21	Loiu	1909/04/24		
Francisco Goitia	16	Loiu	1911/04/01	Elko (NV))	Familiartekoa, Francisco Zabala
Teodoro Sagarduy	29	Loiu	1911/04/01	Elko (NV))	
Damaso Bilbao	16	Loiu	1911/04/01	Spanish Ranch (NV)	Aita, Antonio Bilbao
Cecilio Larrondo	17	Loiu	1911/04/11	Spanish Ranch (NV)	
Emeterio Urrutia	17	Loiu	1917/04/11	New York	Laguna, Valentin Aguirre
Julian Alazabalagalsid	19	Larrabezua	1919/04/08	Yute barkuko tripulaziokoa	
Feliciano Arteché	18	Larrabetzu	1919/04/14	Urkiola Mendi barkuan fogonero	
Benito Aurre	17	Zamudio	1920/04/05	Marysville (CA)	Laguna, Asescio Abagordia
Basilio Ayarza	18	Zamudio	1920/04/05	Marysville (CA)	Laguna, Asescio Abagordia



MAIATZA

<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Francisca Dobaran	21	Erandio	1915/05/12	Boise (ID)	Laguna, Mateo Arregui
Jose Ramon Dobaran	26	Erandio	1915/05/12	Boise (ID)	Goiko Franciscaren senarra
Hilario Larrondo	30	Loiu	1915/05/12	Boise (ID)	Laguna, Mateo Arregui
Maria Larrondo	24	Loiu	1915/05/12	Boise (ID)	Goiko Hilarioren emaztea
Miguel Basaras	19	Loiu	1915/05/26	Mackay (ID)	Osaba, Celestino Arrien
Antonio Villa	19	Larrabesua	1920/05/04	Ely (NV)	Lehengusua, Jose Jauregui
Juan Villa	25	Larabezua(sic)	1920/05/04	Ely (NV)	Laguna, Gracian Saldubiera
Juan Villa	26	Larabezua(sic)	1920/05/04	Ely (NV)	Lehengusua, Jaunagabal (Olazabalaga?)

EKAINA

<i>Izena</i>	<i>Adina</i>	<i>Nongoa</i>	<i>Noiz heldu</i>	<i>Nora</i>	<i>Kontaktua</i>
Julian Egusquiza	19	Erandio	1920/06/08	Mountain Home (ID)	Lehengusua, Jesus Eguskiza
Jesus Elguezabal	19	Erandio	1920/06/08	Mountain Home (ID)	Anaia, Manuel Elguezabal
Ramon Egusquiza	48	Sondika	1920/06/08	Mountain Home(ID)	Semea, Jesus Egusquiza
Bernarda Egusquiza	45	Sondika	1920/06/08	Mountain Home	Semea, Jesus Egusquiza
Rufino Egusquiza	15	Sondika	1920/06/08	Mountain Home	Anaia, Jesus Egusquiza
Lorenzo Egusquiza	13	Sondika	1920/06/08	Mountain Home	Anaia, Jesus Egusquiza
Alipio Egusquiza	7	Sondika	1920/06/08	Mountain Home	Anaia, Jesus Egusquiza

Hemen dogu familia oso baten eredua, gogoratu aitatzen dan Jesus Eguskiza semea/anaia, urte berean, 1920an, baina urtarilaren 6an heldu zala Amerikeetara.



“Prebentzioa osasunerako lehenengo pausoa da”



Bere bizitzako lehenengo zortzi urteak Mexikon eman zituen, eta beharbada horregatik da apur bat iraultzailea. Aita Asuakoa eta ama Mungiakoa, 1945ean Artxandara etorri eta harrezkero herriz Sondika den bertako baserrian bizi izan da. Zaragozan Medikuntza Orokorra ikasten zuen bitartean, aitarekin ibili zen Bilboko kontsultan naturismoari eta medikuntzari lotutako hainbat gai ikasten. Geroago, yoga, akupuntura eta halako teknikak landu zituen Mexikon. Mediku naturalista eta osagilea izanda –baita zirujaua ere–, medikuntzari buruzko ikuspuntu bikoitza dauka, eta alderdi bi horietaz baliatzen da gaixoei osatzen laguntzeko.

Zer da medikuntza naturala?

Lehenengo eta behin aipatu nahiko nuke kontzeptu hori ez dela zuzena. Medikuntza berbak laguntza adierazten du, eta laguntza ez da inoiz izaten naturala: berez ematen dena da naturala. Ikuspegi naturistaren arabera, bakoitzak senda-indarra dauka, eta indar hori gaixotasuna osatzeko erabili behar dugu. Beraz, sendagilea ez da medikua, gure senda-indarra baino. Gaixotasunaren kontra egin beharrean, mediku naturistok gaixoari

laguntzen diogu bere senda-indarra erabiltzen bere burua sendotzeko, eta horretarako metodo fisiko, psikologiko eta kimikoak erabiltzen ditugu, baita janaria eta belarrak ere. Gaixotasuna edo eritasuna zigortzat hartzen da gehienetan, baina, izan, gorputzak barruan daukana kanpora botatzeko borroka izaten da. Eta eriak gaixotasuna gainditzea lortzen badu, ez da medikuaren garaipena, gaixoarena baino.

Beste alde batetik, naturismoari buruz hipokresia handia eta gezur gehiegi

daude. Adibidez, produktu naturalak hartu ohi direla esaten da, baina produktuak badira, ezin dira naturalak izan.

Eta nola laguntzen zaio gaixoari?

Elikaduraren bidez... Eta, batez ere, gaixotasunari beldurra kenduz. Kultura judu-kristauaren arabera, gaixotasuna Jainkoaren zigorra da. Gezur hutsa. Lehen aipatu dudana bezala, gaixotasuna gorputzaren garbitzeko erreakzioa da. Baina, jakina, gu geure buruaren sendagile bihur-

*“Bakoitzak
senda-indarra dauka,
eta indar hori
gaixotasuna osatzeko
erabili behar dugu”*

tzen bagara, orduan ez gara egongo beldurraren, gobernuaren eta beste sendagileen menpe... Gaur egun dena da beldurra: mikrobioei beldurra, birusei beldurra, minbiziari beldurra... Hala ere, ez dugu prebentziorik egiten, eta gero eta farmako, farmazia eta mediku gehiago daude. Eta, gainera, mundu guztiak beldurra die modan dauden gaixotasunei. Gure lana, beraz, honetan datza: gaixo bakoitzari erakusten diogu beraren gaixotasuna zer den eta zertarako etorri zaion, eurak bihur daitezen euren buruaren sendagarri.

Gu geure gorputza sendatzeko gauza gara, beraz, baina kanpoko laguntza behar izanez gero?

Sendagaiak gorputza garbitzeko erabiltzen ditugu, hau da, kaka eta txiza egiteko eta mokoak eta izerdia botatzeko. Sendagai horiek belarretatik datoz. Era berean, beharrezkoa izatekotan, kirurgia ere egiten da.

Txertoa dela medio, galdu egin dira elgorria, barizela eta beste gaixotasun batzuk, baina gaur egun beste batzuk ditugu, larriagoak gainera: minbizia, esklerosi anizkoitza... Zientifikoak haien kontrako

*“Txikitatik gorputzaren
garbiketa egin behar
dugu”*


sendagaiak bilatzen ibiltzen dira, baina alferrik.

Nire iritziz, txikitatik egin behar dugu gorputzaren garbiketa, osterantzean gorputza kronifikatu egiten da eta gaixotasunak gero eta okerragoak izaten dira. Prebentzioan dago koska, baina hura ez da onartu nahi izaten, eta sendagileen esku uzten da osasuna. Mundu honetan osasunaren arazoak ekonomikoak dira, oso larriak. Zientifikoek osasunaren protagonismoa izan nahi dute; ez diote gaixoari eman nahi, eta horren ondorioz porrot eta beldur handia daukagu. Guk, berriz, aitak idatzitako No busques lo que tú tienes liburuaren filosofiari jarraitzen diogu: bilatu zeuk osasuna zeure gorputzean, kendu sobran dagoena eta ipini faltatzen dena. Eta barazkijaleak gara, gorputza ez kutsatzeko...

*“Gure filosofia:
bilatu zeuk osasuna
zeure gorputzean,
kendu sobran dagoena
eta ipini faltatzen dena”*

Baina gorputzak beste elikagai mota batzuk ere beharko ditu...

Ez, nutrizioaren aldetik hori gezurra da. Animaliarik handien eta indartsuenak belarjaleak dira; ez dute proteinarik behar izaten. Eta psikologiaren aldetik tabu handia: okela eta arraina aberatsek jaten dituzte; txiroek, berriz, barazkiak. Gainera, okela janez zezenaren edo behiaren indarra hartzen dela uste da. Zientifikoki ez da egia.



Bidaurrezagaren ustez, behar dugun guztia barazki, fruta eta zerealetan topa dezakegu. Beraz, ez daukagu okela eta arraina jateko beharrik.

“Sendagile askok gure ikuspuntua ontzat hartzen dute azkenean, gaixorik gehienak berez osatzen direla egiaztatzen dutelako”

Beno, egia da jendearen jateko ohiturak gero eta osasuntsuagoak direla.

Bai, baina gero eta barazki, fruta eta zereal gehiago jan arren, oraindik jarraitzen da okela eta arraina hartzen. Elikadurari dagokionez, arazo kultural handia daukagu. Bibliak —hori bai, beti Jainkoaren zigorraren beldurrarekin— naturismoa bultzatu du, osasuntsua izateko aholkua ematen baitzion herriari. Gaur egungo agintariek, berriz, ez dakite edo ez dute erakutsi nahi zelan izan osasuntsua.

**Zein da zure iritzia elikagai transgeniko-
ei buruz?**

Horiek ez digute kalterik egiten, ez dutelako toxikorik. Kimikoki gene batzuk aldatuta izango dituzte, baina gorputzak fruta, zereal eta barazki horietatik behar duena baino ez du hartzen. Okelak, berriz, kalte handiagoa egiten dio gorputzari: hormonak erabiltzen dira animaliak gizentzeko, eta hormona horiek azkenean gure gorputzean gelditzen dira. Gaur egun zergatik izaten dute hainbeste mutil eta neskak halako ipurdi handia?

Lehen aipatu duzu prebentzioa ezinbestekoa dela...

Bai, txikitatik prebentzioaren alde jokatu behar dugu. Umeek osasunerako eskubidea dute eta amak, beraz, seme-alabei titia emateko obligazioa. Hor daukagu lehendabiziko prebentzioa. Geure osasuna kontuan hartu behar dugu, gure seme-alabak osasuntsuak izan daitezzen. Eta jendeari erakutsi behar zaio zelan egin prebentzioa. Beste alde batetik, libreak bagara geure gorputzari kalte egiteko, onartu ditzagun ondorioak eta gero ez gaitzezen etorri laguntasun eske.

Ohiko medikuntzarekin alderatuta, zelango alde onak ditu medikuntza naturistak?



Pilula gehiegi jateaz gain, ez dugu behar bezala jaten, gaur egun.

“Gaur egungo gobernuek politikatzat daukate osasuna eta, ondorioz, munduko bigarren negozio bihurtu da”

Guztiak. Baina bigarren edo hirugarren mailako sendagilek jotzen gaituzte politikoki. Beste sendagileek ez dakite zer den naturismoa, eta guk, oster, unibertsitatean ibiliak garenez, badakigu zer den ohiko medikuntza edo alopatia. Askotan entzun behar izaten dugu: “Zure filosofia gezurra da, demokrazian gehiengoak duelako arrazoia; zuek oso gutxi zarete...”. Hori da demokrazia? Hala eta guztiz ere, sendagile askok gure ikuspuntua ontzat hartzen dute zahartzaroan, euren profesio-bizitzan egiaztatu dutelako gaixorik gehienak berez osatzen direla.

Eta osagarriak izan daitezke?

Ez. Ohiko medikuntzak gaixotasunaren kontra jotzen du, baina guk gorputza garbitzeko erabiltzen dugu. Gehiegi jan, edan edo erretzen dugunean, kalte egiten diogu gorputzari, eta ez badugu hura garbitzen, gaixotu egiten gara. Oso erraza da ulertzen, eta hain erraza denez, gezurtzat hartzen da.

Medikamentu gehiegi hartzen ditugu gaur egun?

Bai, eta gainera ez dugu gorputzaren hizkuntza kontuan hartzen. Askotan gaixotasun konkretu bat dugula pentsatzen dugu diagnostikorik edo zergatirik topatu bari. Adibide bat jarriko dut: mediku bat nigana etorri zen estresa zuela esanez, eta nik adierazi nion sukarra zela, eta berak ezetz, estresa zela... Azkenean, sukarra zen, eta, jakina, sukarrarekin ez dago ondo egoterik. Beste adibide bat: emakumeek pilulak hartzen dituzte hilekoaren mina kentzeko, baina hilekoa berez joaten da; beste gaixotasunekin berdin gertatzen da. Hau da, gorputzak berez egiten du lan, baina horretarako bere denbora behar du. Osasuna orokorki ikusi behar dugu; jakin behar dugu gaixotasuna zergatik eta zertarako etortzen den, eta osasuna lortzeko erabili behar dugu.

Zergatik jotzen du jendeak mediku naturalistengana?

Modagatik, bai eta ohiko medikuntzaren osagarritzat erabiltzeko ere. Familia-medikurengana jotzen dute, baina ez dakite sendagilerik gehienak nazkatuta daudela, ulertu dutelako ezin direla osasunaren protagonistak izan. Beste alde batetik, ospitale-medikuntzan zer gertatzen da? Protagonismoa taldean dagoenez, askok bokazioa galtzen dute.



Josebak yoga eta akupuntura landu zituen Mexikon, besteak beste.

Intrusismo handia?

Bai, mediku asko etekin ekonomikoaren bila baino ez datoz. Gainera, osasunak galera ekonomiko handiak eragiten dizkie Europako gobernuei, eta horregatik akupuntoreak, homeopatak eta abar kontrolatu egin nahi izaten dituzte. Jendeak haiengana jotzen badu, sanitate publikoan gaixo gutxiago egongo dira eta, ondorioz, diru gutxiago gastatuko dute.

Gero eta jende gehiagok jotzen du medikuntza naturalistara, eta unibertsitatean ere ikastaroak ematen dira. Hala ere, Gizarte Segurantzaren barruan ez da sartzen...

Izan ere, mediku naturistak oso gutxi gara eta, filosofia bera izan arren, ikuspuntu desberdinak izaten ditugu, gainera. Orain dela 25 urte mediku naturisten taldea osatzen saiatu nintzen Eusko Jaurlaritzan aurkezteko, ea espezializatzen hartzen zuten... Baina alferrik, denek protagonismo osoa nahi zuten eta nahi dute gaur egun.

Osasuna guztion eskubidea?

Guztiok osasunerako eskubidea daukagula esaten da, baina hori gezurra da, nire ustez. Osasuna obligazioa da, herri baten obligazio nagusia, hain zuzen ere. Eta geure osasunaren alde lan egin behar dugu alde guztietatik. Erromatarren ustez, herriaren lehenengo legea osasuna zen, baina gaur egungo gobernuek ez daukate lehentasuntzat, politikatzat baizik, eta horren ondorioz osasuna munduko bigarren negozio bihurtu da. Herritarren esku jarri beharko zen, eta hori iraultzarik gogorrena da.

“Momentu ahaztezina eman didate familiak, zaleek eta taldekideek”

Maiatzaren 22an San Mames osoa zutunik jarri zen Aitor Larrazabali agurra emateko. Izan ere, lehengo taldean 14 urte eman ondoren, Athleticekin azken partidua jokatu zuen Loiukoak.

Zelan bizi izan zenuen domeka?

Eguna eta gaua luzeak izan ziren, baina oso momentu polita bizi izan nuen. Badakizu inoiz agur esateko ordua ailegatu dena, eta nik domekako bezalakoa izatea espero nuen. Zaleen agurra harrিতa gelditzeko modukoa izan zen; gainera, semeekin irten nintzen zelaira... Momentu ahaztezina eman didate familiak, zaleek eta taldekideek. Hainbat urteren ostean.

Klubean 22 urte eman ondoren ez zaizu fitxa berrituko; arrazoirik edo...

Urte hasieran, Zubizarretarekin-eta egin dako bileretan, adierazi zitzaidan taldean beste urte bat jarraitzeko aukera zegoela. Gainera, aipatu zidaten, Athletic diru aldetik ondo ibiliz gero, fitxa automatikoki berrituko zitzaidala. Geroago Asier del Hornori kontratua berritu, eta egun batean Andoni etorri zitzaidan esanez ez nuela taldean jarraituko...

Zelan hartu zenuen?

Hasiera batean txarto, Andoniren hitzak beste batzuk izan baitziren. Beste alde bate-tik, denboraldia hasi baino lehen presidentek eskatu zuen gure fitxaren %15 klubari emateko, eta nire azken urtea izan arren baietza eman nuen. Klubaren aldetik beste erantzun bat espero nuen, baina... Orduan, apur bat txarto eta minduta sentitzen zara; hala ere, egunak aurrera joan eta beste gauza batzuetan pentsatu behar da.

Eta hemendik aurrera?

Andonik aipatu zidan Lezaman gazte-txoekin lan eginten edo beste zerbaitetan jardun nezakeela, baina ez dut posible ikusten, momentu honetan ez natorrelako bat ez Andoniren ez klubaren pentsaera-rekin. Dena dela, futboleko jarraitzeko asmoa daukat; hemen ez bada, beste leku batean. Eta jarraitzen ez badut, ez da ezer gertatuko... Itxaron egin beharko da.

Baina, zeure burua ikusten duzu beste klub batean?

Athleticen hainbat urte eman ondoren oso zaila egiten zait, baina zerbait interes-garria proposatuz gero, pentsatu egingo dut.

Gaztetxoak entrenatzea gustatuko litzaizuke?

Bai, amets hori daukat, eta uste dut bete egingo dudala. Entrenatzea eta daki-zun guztia besteei erakustea oso garrantzitsua da, nire ustez; baita pertsonak hezte ere.

Zer eman diozu Athletici? Eta klubak zuri?

Klubari, batez ere, neure borroka eta lana eman dizkiot azken 14 urte hauetan. Beraz pozik nago. Athletic ahaztezina da niretzat, bertan asko ikasi dut, baina gainera pertsona moduan hezi naiz.



Ezker-albokoa ondo defendituta?

Bai, Asier del Hornok oso jokalaria ona dela erakutsi du. Dena dela, UEFARA aile-gatuta urte gogorra izango da partidu asko jokatu beharko baitira... Baina, denboraldi honetan bezala borrokatuz gero, taldea erdian edo pixka bat gorago egongo dela pentsatzen dut.

Zelango taldea utziko duzu?

Talde ona. Nire ustez, oso denboraldi ona egin dugu, izan ere, lortu dugun pos-tuan izatea nahiko zaila da liga honetan.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

“Parranda egiteko zein lasai egoteko uneak topa ditzakegu Sondikako jaietan”



Lan handia, beraz...

Bai, San Juan jaiez mundu guztiak goza dezala nahi dugu, eta horretarako egitarau zabala prestatu dugu udalarekin batera: umeentzako parkeak, gazteentzako kontzertuak, nagusientzako hainbat ekintza... Bide honetan, herriko tabernei eta komertzio guztiei euren laguntza eskertu nahiko genieke, eurek barik Sondikako jaiak aurrera ateratzea ezinezkoa izango bailitzake.

Eta zer daukagu jaietan aurten?

Denetarik: poniak eta behitxoak, txapelketak, erromeriak, kalejira, herri kirolak, suziriak... laz herri-bazkaria lehenengo aldiz egin eta 150 bat pertsona batzea lortu genuen; ehun pertsona gehiago batuko ahal dugu aurten!

Zeintzuk dira ekintzarik erakargarrienak?

Zapatuko kontzertua oso arrakastatsua izaten da normalean. Horrezaz gainera, dantzen alardean kanpoko taldeek parte hartzen dutenez jendetza handia biltzen da horretan ere bai. Eta 16 eta 17 urteko gazteek izugarri gustuko dituzte behitxoak... baita txosnak ere!

Beste alde batetik, herri-kirolek ere ikusmina sortzen dute jendearengan. Beno, egia esan, gure herri-kirolak apur bat bereziak dira. Horrela, bada, gizon-probak eta harrizulataileak ditugu. Gizon-probei dagokienez, lau mutilen artean 750 kilo inguruko harria herrestatu behar da. Harrizulataileek, berriz, barra batekin zuloak egin beharko dituzte harrian. Bi txapelketetan Goierri, La Arboleda eta

Aspaldi honetan buru-belarri ibili dira Sondikako jai-batzordeko kideak hainbat eta hainbat ekitaldi antolatzen. Izan ere, ekainaren 18tik 24a bitartean San Juan jaiak ospatuko dira herrian eta dena prest egon behar da, sondikarrei zein Txorierriko beste herri-tarrei ahalik eta jai-egitarau onena eskaintzeko.

Sondikako taldeak arituko dira.

Eta, noski, San Juan gaua ere oso arrakastatsua izaten da.

Nobedaderik?

Aurten triki-poteoa egingo dugu herri-tik Bertoko taldearekin, eta horretaz aparte ez dago nobedade handirik. Aurreko ekintzak hartu eta ospe handirik izan ez dutenak kentzen ditugu, beste berri batzuk eskaintzeko asmoz.

Nola antolatuko da jai-gunea?

Ekintza guztiak San Juan zelaian eta alboetan jorratuko dira. Bertan eszenatokia, hiru txosna eta barrakak ipiniko dira. Eta euria bada herri-bazkaria frontoian izango da. Eta parranda? Gorputzak iraun arte!

Zelako giroa dago normalean?

Beste herri batzuetan ere jaiak dituzte la kontuan hartuta, gauz jende gutxiago izaten da. Horregatik, musika talde potenteak ekartzen saiatu behar da; ahalik eta jende gehien batzeko zapatuan, sikieran. Egunean zehar, berriz, parte hartze handiagoa dago; nahiko jende batzen da ekitaldi gehienetara.

Animatu jendea Sondikako jaietara etortzea.

Ba, anima zaitzete eta etorri gure jaietara, hemen giro ezin hobea aurkituko duzue eta! Eta momentu guztietan izango duzue zer egin eta zer ikusi. Izan ere, parranda egiteko zein lasai egoteko uneak topa ditzakegu Sondikako jaietan

Egitaraua

Ekainak 18, barikua

17:00etan Umeentzako antzerkia, Goronda
Gane ikastetxeko gurasoen elkarteak babestuta
18:30etan Txupina eta kalejira Elaiak taldearekin
19:00etan Behitxoak eta poniak, Viveros Pericak babestuta
21:00etan Tortilla txapelketa (ume zein nagusientzat)
24:00etan Erromeria Urgabe taldearekin

Ekainak 19, zapatua

11:00etan Kalejira Elaiak taldearekin
12:00etatik 14:00akarte Umeentzako parkea zelaian
13:00etan Trikipoteoa herritik
14:00etan Herri-bazkaria zelaian
16:30etan Areto-futboleko partidak eta San Juan 2004ko txapelketaren finala Goronda Beko kiroldegian
18:00etan Dantzen alardea Gorantzaileak taldearekin
20:00etan Herri-kirolak; Gizon-probak: Goierri, Sondika eta La Arboleda
23:00etan Suziriak Gasteizko Valecea pirotekniarekin
24:00etan Kontzertua: Eskalariak
02:00etan Erromeria Hotza taldearekin

Ekainak 20, domeka

10:00etan Aire zabaleko pintura lehiaketa
11:00etan Kalejira Elaiak taldearekin
12:00etan Txuma Olagüe abesbatzaren emanaldia elizan
13:00etan Herri-kirolak: Harrizulataileak
13:00etatik 15:00ak arte Txakolin eta gazta dastatzea
14:00etan Sukalki lehiaketa
16:00etan Tabernen arteko mus txapelketa zelaian
18:00etan Dantzen alardea Gorantzaileak taldeak antolatuta
20:00etan Rantxerak Garibaldi taldearekin

Ekainak 22, martitzena

19:30etan Pentagrama akordeoi-taldearen ekitaldia elizan

Ekainak 23, eguaztena

18:30etan Kalejira Elaiak taldearekin
20:00etan Poniak eta bigantxak Gorritirekin
22:00etan Erromeria Continente taldearekin
23:00etan San Juanada
24:00etan Erromeria Continente taldearekin

Ekainak 24, eguena

11:30etan Meza Nagusia eta Ohorezko aureskua
12:30etan Fanfarrea herritik
13:00etan Jubilatuentzako luntxa
16:00etatik 20:00ak arte Umeentzako parkea zelaian
18:00etan Kalejira Elaiak taldearekin
20:00etan Erromeria Los Txikis taldearekin
22:00etan Azken traka eta jaien amaiera

Gizon probak eta harri zulatzaileak

Duda barik, Sondikako jaietan herri kirolak izaten dira ikusminik handiena sortzen duten ekitaldietariko bat. Izan ere, mutil talde bat 750 kiloko harritzarra erabiltzen edo zuloak egiten ez da egunero ikusten Txorierrin. Herri kirolen arduradun Jokinek Aikor! aldizkariari azaldu dionez, gizon probak antzinatik



datoz Sondikan: "Behin batean, txikiteoan zebiltzala baserritar batzuk hasi ziren esaten euren auzoko mutilak indartsuenak zirela; eta beste batzuek ezetz, euren auzokoak zirela... Eta indartsuenak nortzuk ziren jakiteko gizon-probak egitea erabaki zuten". Denboraren poderioz lehiaketa hori galdu arren, orain urte batzuk berreskuratu egin da jaietan. Beraz, ekainaren 19an, zapatuz, Goierri, Sondika eta Zugaztietako (La Arboleda) taldeek indarrak neurtuko dituzte arrastiko 8etan.

Beste alde batetik, domekan, arrastiko ordu batean, harri zulatzaileak hartuko dute txanda. Kirol hau Meatzaldean sortu zen. Kirolariek 10 zentimetroko sakonerako zuloak egin behar dituzte 30 minutuan, eta gehien egiten duenak irabazten du. Egun horretan ere, Zugaztietako eta Goierriko taldeak arituko dira norgehiagoka. Proba honetan parte hartzeko, Sondikako taldea sortzea espero dute antolatzaileek.


Jon Deunaren II. Areto-Futbol Txapelketa

Eta futbol zaleek ere lekua izango dute Sondikako jaietan. Izan ere, Hegalariak kirol klubak Jon Deunaren II. Areto-Futbol Txapelketa antolatu du, Udalak lagunduta. Maiatzaren 29an, zapatuz, Izarza eta Goiri taldeak norgehiagoka arituko dira arrastiko 4,30etan; geroago (6etan), berriz, Berreteaga eta Sangroniz taldeak. Ekainaren bostean, goizeko 9,30etan, Goiri eta Bentorrillo taldeek jokatuko dute partidua; 10,30etan, oster, Sangroniz eta Basozabal taldeek.

Ekainaren 12an, Izarzak Bentorrilloren aurka jokatuko du arrastiko 4,30etan, eta partidua hori amaitu ostean Berreteaga taldeak Basozabal taldearen kontra.

Ekainaren 19an, hirugarren eta laugarren postuak lortzeko partidua jokatuko dira arrastiko 4,30etan; finala arrastiko 6etan jokatuko da. Partidua guztiak Goronda Beko kiroldegian izango dira.

Jon Garin jaietako kartel lehiaketaren irabazle



Sondikako jaietako kartel lehiaketa Erandioko Jon Garinek irabazi du. Iaz ere berak irabazi zuen lehiaketa hau, eta dagoeneko, guztira, sei sari eskuratu ditu. Erandiokoak azaldu digunaren arabera, "ohiko kartela egiteko asmoa neukan, jai giroa adieraziko zuena, baina bertzailea ere bai". Horretarako, sua eskuan duen baserritar bat pintatu du, eta eguzkitako betaurrekoak ipini dizkiot. "Gainera, nahiz eta ohiko tipografia erabili, hitzak jarri ditudan moduak ere modernotasuna iradokitzen du", esan digu. Koloreei dagokienez, urdina erabili du "Sondikako zapia kolore horretakoa baita; gainera, gorria eta berdea ere aukeratu ditut oso egokiak direlako, gure herria primeran identifikatzen dutelako".

Fermin Garin eta Etor Irazola kultura zinegotziak eta Ana Landa kultura teknikaria

“Loiu herri apartekoa da jaiez gozatzeko”



Aurtengo San Pedro eta Santa Luzia Jaiak ekainaren 26tik 30era bitartean ospatuko dira Loiu. Udalak ekitaldi sorta polita antolatu du hainbat herritar, denda eta tabernaren laguntzarekin, loiu-tar guztiek eta inguruko herrietakoek ere ederto pasatzeko. Aikor! aldizkariak berba egin du Fermin Garin eta Etor Irazola kultura zinegotziekin eta Ana Landa kultura teknikariarekin.

Zein helburu bete nahi duzue?

Mundu guztiak –ume, gazte zein nagusiak– jaiez gozatu eta parte hartzeko aukera izatea nahi dugu. Eta hartarako egitarau zabala prestatu da. Hala ere, beste herri batzuetan ere jaiak dira, eta 18 eta 30 urte bitarteko gazte askok alde egiten dute herritik. Gure helburua da, beraz, Loiu gero eta gazte gehiago geratzeko, eta horregatik eurentzako ekitaldiak eta kontzertuak antolatu dira. Hori da erronka, eta

apurka-apurka lortzen ari da, izan ere, gero eta gazte gehiago gelditzen dira herriko jaietan.

Aurten jaiegun gehiago...

Bai, eta egitaraua prestatzea zailagoa da, aurrekontua aurreko urtekoen antzekoa da eta. Ekitaldiak oso ondo banatu behar izan dira sei egunetan. Gainera, Loiu jaia izan arren, San Pedro eta Santa Luzia egunak lanegunak izango dira asko-

rentzat, eta ekitaldiak ordu egokietan programatu behar dira, lan egiten duten loiu-tarrek jaiez gozatzeko aukera izan dezaten.

Beraz, zer aurki dezakegu jaietan?

Ekainaren 27an, domekaz, herri kirolen jaialdia izango da. Ekitaldirik erakargarrienetarikoa bat da, bertan aizkolarien txapelketa egingo da eta. Txapelketa Loiu hasi eta Euskal Herriko beste herri batzue-

tan jarraituko du aurrerago. Gainera, ETBn emango dute. Beste egunetan umeentzako ekintzak, kaleko antzerkia, idi-probak, dantzen alardea eta kontzertuak egongo dira, besteak beste.

Zelan antolatuko da jai-gunea?

Ekintza guztiak herriko plazan eta pilotalekuan egingo dira, batez ere. Umeentzako parkea plazan eta ondoko landetan ipiniko da. Idi probak Txakur-Txori aparkalekuan egingo dira. Gainera, txosna bat ipiniko da plazan. Bertan auke-
ra izango da menuak eta oilaskoak jateko.

Eta musika, zein ordutara arte?

Beno, gaupasarik ez dugu egingo, baina kontzertuak izango diren egunetan goizaldeko bostak arte jarraituko du jaiak. Horrekin ez dugu arazorik izaten, jende helduak ulertzen duelako jaiak urtean behin egiten direla.

Zelango giroa dago jaietan normalean?

Familiako giroa da: herriko jendea, gurasoak seme-alabekin, gaztetxoak... Beste alde batetik, Txorierriko jende asko

biltzen da kontzertuetara normalean. Euren esanetan, beste herrietako jaietan jende gehiegi izaten da, eta hemen trankil-trankil egon daitezke plazan, ito barik. Aurten ere halako giroa egotea espero dugu.

Zein mezu zabaldu nahi diezue bai loiuztarrei bai txorierritarrei?

Anima daitezela eta parte har dezatela herriko jaietan. Loiu herri apartekoa da jaietz gozatzeko, izan ere, ingurua oso erakargarria eta atsegina da. Gainera, autoa aparkatzeko ez dago arazorik. Beste alde batetik, gauzez ez ezik egunez ere bizi ahal izaten dira jaiak, eta horretarako hainbat ekintza prestatu ditugu. Guk besoak zabalik hartuko ditugu guztiak.

Zerbait gehiago aipatu nahi duzue...

Hurrengo urteei begira, loiuztarrek parte hartze handiagoa izan dezatela jai batzordean, herritar guztien ekarpenek lekua baitute bertan. Zenbat eta jende gehiagok hartu parte, ugariagoak eta hobeagoak izango dira gure jaiak.

LEKE taldeak dantzen agerraldia eskainiko du jaietan estreinako aldiz



Loiuko Euskal Kultur Elkartea (LEKE) sortu zen 2003. urteko irailean. Bertan 5 eta 14 urteren arteko 40 gaztetxo gogoz aritzen dira euskal dantzak ikasten, Janire eta Andere Sondikako Gorantzaileak dantza taldekideekin lagunduta. Bide honetan, Iñigo Couto taldearen presidenteak edozein adinetako pertsonak izena eman dezakeela azaldu dio Aikori.

Aurten, dantzen agerraldia eskainiko du taldeak Loiuko Jaietan lehe-

nengo aldiz. Emanaldia ekainaren 27an, domekan, eguerdiko ordu batean izango da, eta Coutok adierazi digun bezala *“urtean zehar ikasitako jendaurrean erakusteko irrikan daude mutil eta neskatxoak”*. Halaber, eta behin betiko egitaraua ez izan arren, egun horretan egingo dituzten dantzen aurrerapena ere eman digu: agurra, agintariena, Bizkaiko arku dantza, txulalai eta arin-arin, besteak beste.

Egitaraua

Ekainak 25, barikua

18:00etan Kale antzerkia: Panta Rhey
19:00etan Paleta Potro-goma I. txapelketa: 3. eta 4. postuak
20:00etan Saiheski errea
23:30ean Kontzertua: Ene Bada.
Ostean, erromeria Imuntzo eta Beloki taldearekin

Ekainak 26, zapatua

12:00etatik 14:00ak arte: Txu-txu tren
12:00etan Umeen pintura lehiaketa
17:00etatik 20:00ak arte Txu-txu tren
18:00etan Idi-probak Txakur-Txoria aparkalekuan
18:30ean Kale antzerkia: Trapu Zaharra
19:00etan Paleta Potro-goma I. txapelketa: finalak
20:00etan Sardina erreak
22:30ean Kontzertua: Oreka Tx.
Ostean, erromeria Akelarre taldearekin

Ekainak 27, domeka

Eguerdian, pintxo lehiaketa
12:00etatik 14:00ak arte Jolas parkea
12:00etan Erraldoiak, buruhandiak eta Gargantua
13:00etan Loiuko LEKE dantza taldearen agerraldia eta Udal tailerreko tritilarien emanaldia
19:30ean Herri kirolen jaialdia: Aizkolarien Txapelketa, harri-jasotzaileak...
21:30ean Los Veracruz musika taldea: Hegoamerikako musika, boleroak...

Ekainak 28, astelehena

18:00etan Pailazoak: Rasur-en mundu berria, Azkona taldearekin
20:00etan Erromeria, Kiñu taldearekin

Ekainak 29, martitzena

11:30ean Umeentzako tailerra
17:00etan Herri Kirol tailerra
21:30ean Erromeria, Egan taldearekin

Ekainak 30, eguaztena

12:00etan Meza, San Pedro elizan
13:00etan Luntxa
19:30ean Zinea
21:30ean Erromeria, Joselu anaiekin

Aizkolarien I. urrezko liga txapelketa

Ekainaren 27an, domekan, Euskadiko Aizkolarien I. urrezko liga txapelketari hasiera emango zaio Loiuko jaietan arratsaldeko 7:30etan, Arabako Agur Sport enpresak antolatuta. Arria V (Xabier Orbezogo), Angel Arrospide eta Mikel Mindegia aizkolariak norgehiagoka arituko dira bertan. Horrezaz gainera, Carlos Atxa eta El Tigre de Salinas harrijasotzaileek erakustaldia eskaini eta 100 kilotik 230 kilora arteko harriak jasoko dituzte. Atxa eta El Tigre de Salinas Arabako txapeldunak dira harri txiki eta harri handien kate-gorietan, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, Aizkolarien I. urrezko liga txapelketa ekainetik urrira bitartean izango da Euskadiko hainbat herritan. Gaur egungo zortzi aizkolaririk onenek hartuko dute parte txapelketan, Donato Larretxea, Jose Miguel Peñagarikano eta Jose Mari Olasagasti euren artean.

Aizkolariek 6 proba egin beharko dituzte; arintasun eta iraupen-probak besteak beste. Halaber, harrijasotzaileak arituko dira atsedendietan, eta artaburu-billetako eta txingako herri-lehiaketak izango dira.



I. Paleta potro-goma lehiaketa

Aurten I. Paleta potro-goma lehiaketa izango da Loiuko jaietan. Txapelketan izena emateko epea ekainaren 10ra arte izango da Udaletxean, goizeko 9etatik eguerdiko ordu 2etara arte. Loion errolatuek 10 euro eta errolatu gabeek 20 euro ordaindu beharko dute. Halaber, partiden zozketa ekainaren 11n, arratsaldeko 8etan, egingo da antzinako eskoletan. Bertan azalduko zaizkie arauak partehartzaileei.

Lehiaketari dagokionez, 3. eta 4. postuak lortzeko partidak ekainaren 25ean, barikuaz, izango dira arratsaldeko 7etan. Finala, berriz, zapatuan jokatu da ordu berean. Txapeldunek trofeo eta txapela jasoko dituzte saritzat, eta 2. eta 3. postua lortzen dutenei trofeo bana emango zaie. Gainera, klasifikaziorik onena lortzen duten loiutarrek ere trofeoa jasoko dute.



Urteak gimnasia erritmikoa lantzen



Testua eta argazkia: Jose Angel Mentxaka

Derioko udalak antolatutako ikastaro batzuk Miragarri taldea bilakatu ziren 1997.eko urritik aurrera. Gimnasia taldeak 40 neska inguru biltzen ditu gaur egun. Beni Ramos-ek, taldearen lehendakari hasieratik gaur arte, azalpen gehiago ematen digu.

*“Kirol hau oso elitista
da eta umetatik
nabarmentzen direnak
bultzatzen dituzte”*

Zein zen taldea sortzeko arrazoia?

Gurasoak biltzen ginenean lehen baino kalitate eta seriotasun gehiago bilatzen ari ginen. Hiru ama elkartu eta taldea sortzea otu zitzaigun; 30 neska hasi ziren. Gehien kostatu zitzaiguna entrenatzaile iraunkorra aurkitzea izan zen, Sonia Gallegorekin (gaurko entrenatzailea) topo egin genuen arte. Gimnasia, maila honetan ere, entrenatzaileak kotizatu egiten dira eta kalitatea eta nesken aldetik interesaz hartzea nahi baduzu, entrenatzaile ona ekarri behar duzu: kontratua baldintza egokian egin, gizarte-segurantzak eta abar.

Nola zaudete antolatuta?

Orain hiru talde ditugu. 4-8 urte artean inimizazio-aldia da (bi ordu astero). Gero adin ertaineko talde bat dago (9-11 urte), hiru ordu astero, eta lehen hasten dira, nahiz eta oraindik puntuaketa barik izan. Nagusiak 11 urtetik gorakoak dira, txapelketa arruntetan parte hartzen dute eta entrenamendu-eskakizuna handiagoa da. 16 urtetik gora eskola-kirola utzi behar dute eta federatuak eta amateurren artean

banatzen dira. Gureak ez daude federatuen artean, kirol hau oso elitista baita eta umetatik nabarmentzen direnak bakarrik bultzatzen baitituzte; 3 edo 4 ordu entrenatu behar izaten dute egunero, eta gurasok ez dugu nahi horretan sartu

Asko eskatzen duen kirola da?

Bai, exigentzia-maila handikoa da. Baina guk nahiago dugu kirolaz disfruta dezaten. Dedikazioa behar da, entrenamendu asko eta "matxakea" eskatzen du, askotan ezer ikusi barik. Klub batzuek eskaintzak egin dizkigute gimnasta batzuegatik, baina neskek eta familiek erabaki behar dute, eta oraindik inork ez du eman pausu hori: morrontza haundia da eta oso gazteak dira.

Urtero errebisioa egiten diegu, txarrikak dituzte, beroketak eta tiramenduak asko lantzen dira.

Txapelketak ere ez dira beste kirolekoak bezalakoak, hemen denak doaz lehen txapelketara, hortik erdiak pasatzen dira bigarrenera, gero horreen erdiak hurrengora. Nahiko konplikatuak da neskak motibatuta edukitzea.

Zein adinarekin uzten diote?

16 urtetik gora hasten dira uzten eta beste gauza bat hartzen. Amaitzen dute nean Aerobic edo mantentze-gimnasia-rantz bideratzen ditugu. Onena balet-dantzako talde bat sortzea litzateke. Uzten diotenean esaten diet ulertzen

*“Exigentzia-maila
handiko kirola da,
hala ere, gimnasiaz
disfruta dezaten
nahiago dugu”*

*“Beste herrietatik orain
baino neska gehiago
espero dugu
etorkizunean”*

dudala, oso exigentea delako, baina gimnasia erritmikoa utzi arren kirola ez uzteko, hau da, hainbesteko ahalegina eskatzen ez duen beste kirolen bat hartzeko.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Jendea animatua dago, eta ondo. Entrenatzailearekin asmatu dugula uste dugu; interes handia dauka, eta neskek ere bai. Emakumezkoek kirolean ez dugu parte hartze haundirik eta gimnasia aukera polita da. Beste herrietatik orain baino neska gehiago espero dugu etorkizunean; Sondikan beste talde bat sortzea eskatu digute, baina zaila da guretzat eta Derio Txorierrirako erreferentzia izan behar dela uste dugu.

Sutearo, baserritarrek bat egiten dute

Suaroak, Etxe-errienak, Ermandadeak... Urteetan zehar Euskal Herriko baserri-tarrek hainbat elkarte osatu dituzte ezbeharrei elkarrekin aurre egiteko asmoz. Horrela, suaren edo beste zoritxarren baten eraginez haietariko batek kalterik izanez gero, guztien artean eusten zioten konponketari. Antzina eskulana eskain-tzen zioten elkarri; geroago egurra eta eskulana. Gaur egun, dirua da jartzen dena berritze lanak ordaintzeko.

1991. urtean hauetako elkarte bat sortu zen: Sutearo. Kepa Enbeitia elkartearen kide eta laguntzailearekin hitz egiteko aukera izan du Aikor!ek.

Azaldu zer den Sutearo, mesedez.

Sutearoko kideek elkarri laguntzea dugu helburu. Horretarako, arriskuetaarako fondo-aurreikuspen bat osatu eta, ezbeharren bat izanez gero, dirua hortik hartzen dute partaideek. Ildo honetan, aseguru-etxea ez garela azpimarratu nahiko nuke: kide bakoitzak diru-kuota bat jartzen du urtero, baina Sutarok ez du etekinik, eta baja ematen badu dirua itzultzen zaio. Halaber, ezbehar bakoitzari nola erantzun guztion artean erabakitzen dugu.

Zenbat Sutearo daude gaur egun?

Bizkaian 32, Gipuzkoan 3 eta Araban 1; Bizkaiko Sutearo Federazioa osatzen dute. Horrela, hainbat administrazio egon beharrean administrazio bakarra izatea lortzen dugu, baita peritu bakarra ere. Gipuzkoan, esate baterako, halako ermandadeak izan baziren aspaldian, eta desagertu arren partaideek ez zuten filosofia hori galdu. Hala ere, elkarte gutxi dira oraindik, eta euren federazioa sortu ahal izan arte gurean dihardute.

Eta zenbat partaide?

Gaur egun, 3.400 bat bazkide izango gara, eta 260 txorierritarrak dira. Hemengo baserritar gehienek Erandioko Sutearoan eman dute izena, Lezama eta Larrabetzukoek izan ezik. Horreek, hurbiltasuna dela eta, Zomotzakoan edota Gamizekoan eman dute alta ... Zentzu horretan, Txorierriko Sutearoa sortzeko beharra daukagu.

Zeintzuk dira Sutearoek erantzundako ezbeharrak?

Aspaldian etxeak izandako kalteei baino ez zitzaion erantzuten. Nolanahi ere, denboraren poderioz, eta gizarteak aurrera egiten duen neurrian, beste elementu batzuk ere hartzen dira kontuan: etxebizitza, kortak, altzariak, bitxiak, urak eragindako kalteak, ganadua, ortuak... Ganadua hondatuz gero, esate baterako, Sutearoak galera horri erantzuteko alde aurretik eskatu behar da. Hau da, kideak ganadua ere aseguratu nahi duela adierazi behar dio elkarteari. Eta, logikoa denez, diru gehiago jarri behar du. Kasu guztietan ondasunen tasazioa egin eta horren arabera jarri eta ematen da dirua.

Beste alde batetik, konpainia batekin erantzukizun zibileko aseguru kolektiboa ere badaukagu, txakurrek norbaiti koska egitekotan horri ere erantzuteko.

Baserritarrek izaten dituzten kalteak...

Suari beldur handia izaten zaio normalean, galera inportanteak eragiten baititu. Sua dela eta, Txorierriin, adibidez, lau bat milioiko galera izan dugu, eta beste txiki batzuk ere bai. Halaber, haizea, ura eta tximistak ere kalte handiak sortzen dituzte: 1999. urtean Erandioko elkartearen bost milioitik gorako kalteak izan ziren haizearen eraginez, hain zuzen ere.

Zein da Sutearoen etorkizuna?

Elkarteek bizirik iraun dute mendez mende, eta betiko ere iraun dezakete.



Urte gutxitan Sutearoek berrehun milioitik gorako kalteei erantzuna eman die. Gainera, kideen urteko diru-ekarpenekin kalteei zein administrazio-gastuei eutsi eta ia beste horrenbesteko diru-fondoa osatu da. Nire ustez, etorkizuna bermatuta dago.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

SASSER

Testua: Alberto Legarreta

Mota: Interneteko harra

Alias: Sasser, W32/Sasser, W32/Sasser.worm, Win32/Sasser, WORM_SASSER

Data: 2004/Maiatza/01

Plataforma: Windows NT, 2000, XP, 2003

Neurria: 15,872 byte (PECompact)

Portua: TCP 445, 5554 eta 9996

Visual C++-en programatutako sareko har bat erabiltzen dau, LSASS (Local Security Authority Subsystem) zabaltzeko. Microsoftek atera eban MS04-011 (835732) buletina, hari aurre egiteko. Eta partxe hori instalatuta ez dauken Windows XP edo 2000 sistemei eragiten deutse. Interneten kalte handiak egin ditu.

Aurkitu

Zelan egiaztatu zulo hori daukazu.

<http://www.foundstone.com/resources/termsfuse.htm?file=dsscan.zip>



Zuloa izanez gero, MS04-011(835732) partxea ipini behar dozu. Laguntza hemen: <http://www.vsantivirus.com/vulms04-011.htm>

Bestela, "Windows Update" egin zeinke.

Sasserren adierazlea

Batzuetan honelako mezu bat agertzen da:

LSA Shell (Export Version) ha encontrado un problema y debe cerrarse. Sentimos los inconvenientes ocasionados.

Eta ordenadorea amatatu eta izetuten da.

Ezabatu

WEBen edozein antibirus aurkitu zeinke. Adibidez:

McAfee AVERT Stinger

<http://download.nai.com/products/mcafee-avert/stinger.exe>

Future Time Srl (NOD 32)

<http://www.nod32.it/cgi-bin/mapdl.pl?tool=Sasser>

Informazio Gehiago

<http://www.vsantivirus.com/faq-sasser.htm>

<http://www.vsantivirus.com/vulms04-011.htm>

<http://www.vsantivirus.com/02-05-04.htm>

Bidali zure iradokizun edo zalantzak hurrengo helbide elektronikora: traktor@euskalnet.net

XP sistema eragileko fitxategiak berreskuratzen

XP sistema eragileak trentza batzuk daukaz, ustekabeen ezabatutako fitxategiak edo birusen batek aldatutakoak berreskuratzeke. Nahiz eta XPko fitxategiak berreskuratzeke babestuta dagoen prozesu automatiko bat egon, batzuetan eskuz berreskuratu behar doguz sistema eragileko fitxategiak. Horretarako, Windows instalatzeko CDa euki behar dozu edo disko gogorrean kopiatutako instalazio fitxategiak. Berreskuratzeke hau egin behar da:

- 1.- Inicio>Ejecutar eta idatzi MSCONFIG eta Enter sakatu.
- 2.- "General" barruan sartu eta "Expandir Archivo" botoia sakatu.
- 3.- Ipini fitxategiaren izena "Archivo para restaurar"-en.
- 4.- "Restaurar desde"-n Windows instalatzeko fitxategiak dagozan bidaia guztia ipini behar dozu (CDn D:\I386 da normalean). Bestela bilatu disko gogorrean non dagozen.
- 5.- "Guardar archivo en"-en euki behar dozu C:\WINDOWS\SYSTEM32 (normalean hau izaten da XP sistema eragileko fitxategia).
- 6.- "Aceptar" botoia sakatu.



Zamudio-Zugasti leinua

Larrabetzuko Martin Inigez edo Inigo Martinez Zugastitarrek, belaunaldiz belaunaldi izen berekoak, Elizaldeko eta Uriko jauntxo izan ziren. XIV. gizaldeko lehen partean jadanik Elizaldeko patroï legez agertzen dira, Uria sortu baino lehen hain zuzen. XV. gizaldiaren azken partean haue-tako hiru Bizkaiko alkate edo epaile izan ziren. Uriko alkate zenbait aldiz eta, batez ere, eragin haundiko sendia.


Arteagako Martin deunaren Elizaldeko patroï eta jaun izan ziren hainbat belaunal-ditan Zamudiotarrek, Ordoño izenez, ospe haundiko leinua hain zuzen.

Baina XV. gizaldearen amaieran leinu biek bat egin zuten. Banaka ospetsuak baziren, ezkontzaz elkartu zirenean onda-sun erraldoia eskuratu zuten. Torre, base-ri, errota eta burdinolen jabe egin ziren ezkonbarriak.

Derion Aresti burdinola, Zamudion Zamudiotarren torrea, baserriak, Arteaga eta Olaburiaga burdinolak eta Larrabetzun sei baserri, torrea, Errotabarri errota eta baserria, Olatxu-Zubieta burdinola eta Goikoola eta Sarrikolako partzuergoaren jabe izan ziren.



Olaburiaga, Zamudiotarren burdinola bat Zamudion



XV. eta XVI. gizaldian Zugasti Zamudio leinuen zugaizta

Gerora, leinuaren ondorengoak Gondomar konte eta Malpikako markes bihurtuta agertzen zaizkigu.

Larrabetzuko Zugastitarren torrea XVIII. gizaldearen azkenerrantz desagertu

zen eta Zamudiotarren Malpika torrea izenarekin esagutzen dugu. Bailaran eragin haundikoak zalantza barik, batez ere erdi-aroaren amaieran. XVII. gizaldean, aldiz, Gaztelako beste leinuekin bat egite-rakoan lurraldetik alde egin zuten eta lotu-ra bakarria bertoko ondasunen errentak eskuratzea izan zen.

Bide batez demagun Larrabetzu beste bailara bateko lurraldea dela, Ibaizabal ibaia-ren bailarakoa hain zuzen, baina Zamudiotar eta Zugastitarren bat egiteak Larrabetzu Asua bailarari begira jarri zuen. Gaur egun Txorierri izenarekin ezagutzen dugun lurral-dea ez zaigu agertzen antzinako agirietan: hala ere, azken aldia horrela ezagutzen dugunez, onar dezagun.

Lurraldeko aberastasuna, ganadu zain-tzak aparte, XIV. gizalditik aurrera burdino-len lanak ekarri zuen eta bertoko jauntxoek ondo probetxatu zuten.

Agortutakoan, merkataritzari ekin zioten, horretan ere nahiko arrakasta handiarekin.

Testua eta argazkia: Sabin Arana (Ikerlaria)

Argiaz gozatzeko Futuroescopen

Aste Santuko oporrak hurbil genituen, baina planik ez. Horregatik, Txorierriko Udalek antolatutako bidaia batera joatea pentsatu genuen. Frantziarako bidaia zen hura; bertan Futuroescope parkea bisitatzeko aukera izango genuen, beste hainbat tokiren artean. Birritan pentsatu barik, maletak egin eta autobusa hartu genuen. Frantziako bandan hasi ginen!

Lehenengo bi egunak Futuroescope parkean eman genituen; besteak, berriz, gaztelu eta jauregi artean. Hurrengo lerroetan parkeari egindako bisitaldia kontatuko dizuet.

Futuroescope parkera sartu bezain laster aurikular antzeko tresna batzuk eman zizkiguten. Izan ere, parkeko film guzti-guztiak frantsesez zeuden eta aurikularren bidez gaztelarrera itzuliko zitzaigun dena hitzez hitz.

Bertan ez zegoen olgetan egoteko inolako gune edo barrakarik, irudi eta soinuaren oinarrituriko parkea baita. Hori bai, hainbat eraikin abstraktu eta originalek osatzen dute parkea, eta euren hormetan hiru dimentsioko film ikaragarriak ikus daitezke.

Beste alde batetik, sabela betetzeko zenbait taberna eta jantoki zeuden, baita pizzeriak eta hanburgesategiak ere. Beraz, janaria ez zen arazoa eta bakoitzak bata edo bestea aukeratu ahal genuen, geure gustuen arabera. Bapo jan eta afaldu ondoren, bertan dagoen ikuskizunik politena miresteko aukera izan genuen. Ikuskizun hau lakuaren gainean egiten da eta, ur jarioaren gainean argi ezberdinak islatuz, mundu magiko bat ezagutzeko aukera ematen zaizu. Hau da Futuroescopek eman ahal dizun agurrik beroena, nire ustez.

Testua eta argazkia: Udane Aiarza



Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

FIDEUA (ez fideoa)

Osagaiak

Kilo erdi fideua
Kilo erdi muskuilu (mojoi)
8 langostino
6 txipiroi
Kinpula erdi bat
Berakatz buru bat
Piper berde bi
Piper gorri erdi bat
Tomate bat, oliba orioa eta gatza

Prestatzeko era

Bota orioa eta ortuari guztiak txiki-txiki eginda kazuela baten (kinpula, berakatz, piper berdea, piper gorria eta tomatea) eta honegaz batera txipiroiak be txikitu eta bota. Hau guztia biguntzen danean, litro bat ur eta fideua bota eta irakiten hasten danean bota langostinoak. Muskuiluak lurrunetan zabaldu eta ganera bota. Gatza egin eta 10 minutuan irakiten euki eta gero surtetik atara, tapa ipini eta 20 minutuan jateko prest dago. On egin!



Mari Tere Onaindia

Zainzuriak menda, gazta parmesano eta gazitutako antxoekin

Osagaiak (4lagunentzat)

40 gr. gazta parmesanoa
20 gr. almendra xamurra
8 gazitutako antxo-solomo
5 cl. soja likidoa
cl. 1 Modenako ozpina
2 gr. gatza Maldom

Zainzurientzat: 12 gari-zainzuriak, dl. 1 oliba olio

Mendazko gelatinarentzat: 40 gr. menda freskoa, dl. 1 ur minerala, gelatina-kola bat

Laranja-hautsarentzat: 50 gr. laranja-azala, 5gr. sesamo beltza

Prestatzeko era

Laranja-azala 90 gradu zentigradotan 3 ordutan sikatu eta sesamo beltzarekin batera birrinduko dugu. Zainzuriak zuritu eta azalak zein puntak gordeko ditugu.

Banan-banan puntak, begiak eta zentroak galdarraztatuko ditugu 10 segundotan. Gero, azalak urtu eta oliba olioarekin emulsionatuko ditugu. Menda galdarraztatu eta urtuko dugu 2 dl. urina lortzeko. Urina gelatina-kolarekin nahastu eta 2 milimetroko lodierako lamina batean banatuko dugu.

Beste alde batetik, antxoak garbitu eta zentroak milimetro bat bider milimetro bateko dadotan moztuko ditugu. Puntak soja-zukua egiteko gordeko ditugu.

Azkenik, ozpina, soja, gatza eta antxo-puntak irabiatu eta iraziko ditugu.

Aurkezteko era:

Zainzuriak antxo-zukuarekin igurtzi, eta 3 zentimetroko luzerako 4 barra bata bestearen ondoan ipiniko ditugu. Ostean, antxo-dado eta mendazko jelatinarekin

maneaturiko ditugu. Halaber, zainzurien gainean almendra eta gazta parmesanoa birrinduko ditugu. Zainzurien ondoan laranja eta sesamozko linea bat jarriko dugu.



Gaminiz jatetxea Zamudion

Antzerkia eta filmak

Sondika

En pie maricas de la tierra, Kepa Gallegorekin. Ekainaren 11n, 20:00etan, Gaztetxean.

Inaxitoren ametsak, Trikuharri taldearekin. Ekainaren 18an, 17:00etan, San Juan zelaian.

Zamudio

Pastel magikoa, ekainaren 11n; *La mansión encantada*, ekainaren 25ean, 19:30ean, Dorretxean

Larrabetzu

Joxemari Carrere ipuin kontalaria. Ekainaren 25ean, 19:00etan, Kultur Etxean

Erakusketak

Sondika

Gabriel Cualladoren argazkiak. Ekainaren 1etik 15era bitartean, erakusketa gelan.

El Museo del Prado, **12 artista garaikideren ikuspegia.** Ekainaren 16tik 30era bitartean, erakusketa gelan.

Zamudio

Estibaliz Garziaren grabatuak eta teknika mistoak. Ekainaren 7tik 30era bitartean.

Larrabetzu

Larrabetzuko zerbitzu-ikastaroen argazkiak. Ekainaren 14tik 18ra bitartean, Kultur Etxean.

Irteerak

Sondika, Lezama eta Larrabetzu Huescara (Abentura bidaia). Uztailaren 3 eta 4an.

Sondika, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu Bartzelonako Forumera. Uztailaren 9tik 11ra bitartean.

Sondika

La Arboledara. Ekainaren 29an.

Zamudio

Araba Euskaraz-era (Bastida) Ekainaren 20an.
Segoviara. Ekainaren 5ean eta 6an.

Lezama

Lokiz mendira. Ekainaren 13an

Jaiak

Derio eta Lezama

San Joanada, Ekainak 23

Larrabetzu

San Antonio. Ekainak 12: **saiheskia**, **erromeria Luhartz taldearekin.** Ekainak 13: **puzgarriak, meza eta hamaiketakoa**

Kirola

Derio

Areto Futboleko Maratoia. Ekainaren 18an, 19an eta 20an, kiroldegian

Txorierriko Esku Pilota Torneoaren finalak. Ekainaren 20an, 10:00etan, udal pilotalekuan.

Zamudio

Futbito txapelketa. Uztailaren 1etik 24ra bitartean. Izena emateko epea ekainaren 14ra arte

Lezama

Futbol kanpusa. Ekainaren 28tik uztailaren 9ra arte. Argibide gehiago liburutegian. Izena emateko epea ekainaren 8a baino lehen.

Futbito txapelketa. Uztailaren 17a baino lehen. Izena emateko epea ekainaren 17a baino lehen.

Lehiaketak

Zamudio

II. Pintura Lehiaketa. Ekainaren 20an, San Tomas ermitan.

Kontzertuak

Derio

Zaragozako San Agustin abesbatza. Ekainaren 5ean, 19:30ean, Isidro Deuna elizan

Larrabetzu

David Bowiek Bilboko zezen plazan emango duen kontzerturako sarrerak salgai.

Bestelakoak

Derio

Orientazio lasterketa. Ekainaren 15ean, 10:30ean, Herri Ikastetxean.

Zamudio eta Lezama

Uda kanpainan izena emateko epea zabalik.